

ANDRE MADALEN

UMORE ona donostiarren artian, ez da bart arratzian sortutako gauza. Lengo kanta zarretan asaltzen da Jošemaritarren alaitasun betikua, ta kanta abetatik bat orain asaltzera guazena da.

San Bizente-ko aurrian zegon ta oraindik dagon oliyotegi batian ger-tatu omentzan. Gezurra ala egiya begira zer diyon lengo kanta zarrak:



Andre Madalen, andre Madalen
 laurden erdi bat oliyo
 aitag jornalak ekarrizian
 amak pagatuko diyoy.

Onlako kantakin jaitzen zuten donostiarrak choch berriya, upelategi inguruan biltzen ziranian oju ta kantaz alaiturik inguru guziyak.

Y.